

ESKOLAKO AGENDA 21
AGENDA 21 ESCOLAR
VITORIA-GASTEIZ
2014 – 2015

ESKOLAKO MUGKORTASUN AUTONOMOIA ETA AKTIBOA MOVILIDAD ESCOLAR AUTÓNOMA Y ACTIVA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



galemys

SARRERA

Jaun andere agurgarriak:

Foro honetara Vitoria-Gasteizko 19.000 ikasle baino gehiagoren izenean gatoz, Eskolako Agenda 21 proiektuan **eskolako mugikortasun autonomoa eta aktiboa** gaiari buruz landu duguna aurkezteko.

Lan hau ez litzateke posible izango gure irakasleen, familien eta Vitoria-Gasteizko hiritarren, laguntza eta partaidetzarik gabe. Guzti hauei mila esker.

AUREKO URTEETAKO PROPOSAMENEN JARRAIPENA

Ikasturte honetan egindako lana aurkeztu baino lehen 2009-2010. Ikasturtean landutako gaiaren inguruan udalari eginiko proposamenen jarraipena aurkeztu nahi dizuegu. Hain zuzen ere, **mugikortasuna eta aldaketa klimatikoa** gaiaren ingurukoak.

Proposamen batzuk bete dira:

- *Egibide-Nieves Cano eskola inguruan Ikastetxe bat dagoela seinalatzatzea harrapatzeen kopurua murrizteko.*
- *Jose Mardones kalean semaforoak jartzea zebra-bideak ez direlako errespetatzen.*
- *Beato Tomás de Zumárraga kalean, tranbia jarri baino lehen bezala zebra-bidea eta semaforoa kokatzea, jendea hortik pasatzen jarraitzen duelako.*
- *Legutioko kalean zebra-bideetako zintarria beheratzea.*
- *Gasteiz Hiribidean bidegorri zabalagoak eta bi noranzkoekin (lehengoak bezalakoak) egitea.*

Beste batzuk, bete dira baina hobetzeko daude:

- *Huetos hiribideko argiztapena hobetzea.*

Proposamen batzuk ez dira bete horregatik eskatzen diogu Udalari berrikustea eta baloratzea:

- *Nieves Cano kaleko bidegorria hobetzea: zuloak konpontzea eta zoru irristagarria ez jartzea.*
- *Monseñor Estenaga kalean, neguan, elurte eta izozteak daudenean, irristadak ez egoteko neurriak hartzea.*
- *Huetos hiribideko zubian baranda altuagoak ipintzea .*
- *Sansomendi kalean eskailerak kentzea.*
- *Zaramaga kaleko bidegorrian semaforo bat jartzea, autoek ez dutelako bizikletak ikusten.*

- *Beato Tomás de Zumárraga-Fernández de Leceta bidegurutzean semaforoa ipintzea, zebrabidea errespetatzen ez delako eta gaizki aparkatutako autoek ikusgaitasuna oztopatzen dutelako.*
- *Gasteiz hiribidea- Adriano VI.-eko semaforoko anbarra kentzea, nahastea sortzen duelako.*

Udalari eskerrak eman nahi diogu guri jaramon egiteagatik eta gure ekarpenak kontuan hartu izanagatik. Jarraian, ikasturte honetan egindako lana eta **eskolako mugikortasunaren** inguruan ateratako ondorioak aurkeztuko dizkizuegu.

EGINDAKO LANA ETA ATERATAKO ONDORIOAK

Ikasturte honetan, eskolako mugikortasunaren diagnostia egin dugu, gure eskola bideko ohiturak edota autonomia maila zein den ezagutzeko. Horretarako, ikasle, irakasle zein gurasoek inkesta batzuk bete ditugu eta jarraian, ateratako ondorio garrantzitsuenetarikoa aurkezten dizkizuegu:

- Bigarren hezkuntzako ikasle gehienak modu aktiboan joaten gara eskolara (oinez, bizikletaz edota patinetez), aldiz, lehen hezkuntzako erdia bakarrik joaten da modu honetan.
- Lehen hezkuntzako ikasle gehienak, eskolara heldu batekin joaten gara, bigarren hezkuntzako ikasle ugari ordea, era autonomoan joaten da.
- Gehienoi, eskola bidea era aktiboan eta autonomoan egitea gustatuko litzaiguke.

Eskola mugikortasuna aktibo eta autonomoagoa izan dadin gure jarrera edota ohituraz gain eta udalak egin ditzakeen hobekuntzaz aparte, ikastetxeek ere bai eragina izan dezaketela uste dugu. Horregatik, gure ikastetxeetan *Ekintza Planak* diseinatu ditugu non, hurrengo urteetan betetzen joango diren ekintzak jasotzen diren.

Gainera, ikastetxe bakoitzak oinez edo bizikletaz egiten diren eskola bideak identifikatu ditu eta baita hauetan aurkitutako puntu beltzak ere. Informazio guzti hori *google maps* batean irudikatu da eta ondoren, ikastetxe guztien eta Udalaren eskura jarri da.

Jarraian, eskola mugikortasunaren gainean hartutako konpromisoak eta udalari egiten dizkiogun ekarpenak aurkeztuko dizkizuegu.

HIRI SEGURTASUNA

Kale eta parke batzuetako argiztapena eskasa da. Hau dela eta hurrengo **konpromisoak** hartuko ditugu:

- Aritasun gehien dagoen bidetik joatea, kale nagusietatik.
- Pertsona heldu edota anai-arreba nagusiren batek lagundu gaitzan saiatzea.
- Garraio publikoan joaten saiatuko gara , posible bada auzoan bizi diren beste ikaskide batzuekin batera.

Eta Udalari **eskatzen** diogu:

- *Zonalde horiek gehiago kontrolatzea eta kaleargi (farola) gehiago jartzea.*
- Garraio publiko batzuk ikastetxeen beharretara egokitzea.

IRISGARRITASUNA

Badaude leku batzuk non irisgarritasuna egokia ez den bizikleta, elbarritu edota patinetea erabiltzen dutenentzat. Horregatik, guk honako **konpromisoak** hartzen ditugu:

- Udalari zintarri desegokiak egokitzeko esatea.
- Zintarri desegokiak edo gaizki leunduak dauden gunek saihestea.
- Elbarrituen aparkalekuetan ez aparkatzea.
- Zibikoak izatea.

Udalari honakoa **eskatzen** diogu:

- Armentia ikastetxeko sarreran aldapa jartzea.
- Espaloietako zintarriak leuntzea.
- Aldizkako ikuskapenak kaleetan, arazoak saihestu eta konpontzeko.
- Badenak ongi egitea, nahasketarik ez egoteko.
- Elbarrien aparkalekuetan aparkatzen duenari isunak jartzea.
- Elbarrituentzako parking gehiago jartzea.
- Salbatierrabide eta Araba kaleko bidegurutzean bizikletarekin espaloiara sartzeko zailtasunak daudenez, bidegurutzea aldatzea.

KUTSADURA

Kale batzuetan trafiko gehiegi dago eta ondorioz, zarata eta gas ugari daude. Hori dela eta guk honako **konpromisoak** hartuko ditugu:

- Eskolara oinez edo bizikletaz joatea edo garraio publikoa erabiltzea.
- Autoa gutxiago erabiltzea, soilik beharrezkoa denean.

Eta gai honen inguruan Udalari **eskatzen** diogu:

- Auzoan tranbia geltoki bat jartzea.
- Garraio jasangarriaren erabilera sustatzen jarraitzea.

- Gidariei beste bide batzuk proposatzea.

JARRERA

Hirian, erabiltzaile asko gara bideak eta espaloiak partekatzen dugunok. Horregatik, bizikidetzaz hoberena izan dadin araudia egoteaz gain garrantzitsua da norberaren jarrera egokia izatea. Hori dela eta, gu hontara **konprometitzen** gara:

- *Adi ibili eta kotxea gelditu arte ez hasi gurutzatzen eta arauak eta semaforoak errespetatzea.*
- *Behar dugun lekutik gurutzatzea. Kale erditik gurutzatu beharrean beti semaforora joatea.*
- Zebrabidetik ondo zeharkatzea eta alde zurretik ondo begiratu.
- *Espaloia eta errepidea bereizten duten piboteetan ez esertzea.*
- *Gure gurasoei esatea nahiago dugula oinez edo patinetek etortzea eta autoa gutxiago erabiltzea.*
- *Gurasoei esan ondo aparkatzeko nahiz eta pixka bat ibili beharra izan eta zebrabideak errespetatzeko esan.*
- Norbait ikusten badugu gaizki zeharkatzen, esan ondo egiteko.
- Ikastetxera sartu aurretik edo ateratzean lasaitasunez jokatu eta txanda mantendu.

Eta Udalari **proposatzen** diogu:

- *Ilara bikoitzean edo espaloian aparkatzen dutenei isunak jartzea.*
- *Polizia egon dadila gidariei zebrabideak errespetatu behar dituztela esateko eta oinezkoenganako errespetua gogorarazteko.*
- *Seinaleak errespetatzen ez dituztenei isunak jartzea.*
- Radar gehiago jartzea.
- Hilabete batean zehar polizia egotea oinezkoak zebrabideetatik pasa daitezen.
- Ordu zehatz batzuetan udaltzainak egotea eta abiadura murrizteko badenak eta argidun seinaleak jartzea.
- Era seguruan gidatzeko ikastaroak ematea.
- Hiritarrentzako sentsibilizazio kanpainak egitea.

SEINALEAK

Leku edo kale batzuetan seinale bertikal zein horizontalak falta dira edo egoera txarrean daude. Hala nola: zebrabideak, semaforoak, semafoeren iraupena, eskola gunea adierazten duten seinaleak, etab. Guk honako **konpromiso** hauek hartuko ditugu:

- Departamentu ezberdinei zebrabideen beharraz informatzea.
- Entitate publikoei bide markak egoera onean mantentzearen beharra transmititzea.

Udalari honakoa eskatzen diogu:

- *Semaforoak jartzea, adibidez; Quejana gaztelua kalea eta Fontetxa gaztelua kalearen arteko bidegurutzean edota Zumakera kalean.*
- *Semaforoaren iraupena luzatzea oinezkoentzat, autoentzat eta oinezkoentzat denbora berbera ipintzea eta semaforoetan, sakagailuak jartzea.*
- Semaforoetan entzumen hotsa jartzea.
- Cruz Blanca eta Gorbea kaleako semaforoak konpontzea.
- Peru kaleko 5. zenbakiko oinezkoen semaforoa berritzea.
- Bidegorrietan, lehentasun marra-gurutzatu horiak nabarmen margotu edota soinu-marrez margotzea.
- Zebrabideak jartzea, adibidez; Zorrostea eta El Salvador kaleetan.
- Zebrabideak ongi margotzea.
- Proposamenak bete ahal izateko, eskaeraren kudeaketa erraztea.
- Gatazkatsuak diren gunetako seinaleak berrikustea eta beharrezkoak direnak kokatzea.
- Eskola gunea, bidea edo irteera adieraztea.
- Zaia ibaia kalean, STOP seinalea jartzea.

MANTENTZE LANAK

Gure eskola bideko espaloi batzuen mantenua ez da egokia baldosa eta estolda batzuk aske daudelako. Hau hobetzeko, guk ondorengo **konpromisoak** hartzen ditugu:

- Udalari, egoera txarrean dauden baldosen berri ematea.
- Udalaren zerbitzu egokiei, aske dauden estolden berri ematea.
- Parkeak, bideak etab. Zaintzea.

Eta Udalari **eskatzen** diogu:

- *Maiztasun gehiagorekin berrikustea eta konpontzea.*
- Boluntaria Entrega kaleko errepidea konpontzea.

KALEKO ANATOMIA

Ikusi dugu, toki batzuetan gure eskola bidea eragozten edo zailtzen duten arazo edota hondamenak daudela. Hala nola; espaloi irristakorrak, mediana eta espaloi estuak, bereizketa elementuen falta edo ikuspen urriko gunek. Guk **konpromiso** hauek hartzen ditugu:

- Espaloietakoko gune irristakorretatik poliki pasatzea.
- Ikuspen txarra duten gunek Udalari jakinaraztea.

- Udalari seinaleztatu gabeko obren berri ematea.

Eta Udalari **eskatzen** diogu:

- *Baldosak aldatzea eta mantentze lanak maiztasun handiagorekin egitea.*
- Mediana zabaltzea, adibidez; Mejiko eta Beato Tomas de Zumarraga kalekoa, seminario parekoa.
- Espaloia zabaltzea.
- Garaje guneak adieraztea.
- Obrak ongi seinaleztatzea.

- Edukiontzien kokapena kontrolatzea.
- Errepidea eta espaloia bereizten duen hesia luzatzea Caserio kalean eta Araba kalean (Paula Montal ikastetxe parean) jartzea.
- Kristo kalean, tranbia eta espaloia bereizten duen hesia kokatzea.

BIZIKLETAK

Nahiz eta gure hiria bizikletan ibiltzeko aproposa izan, oraindik badaude hobekuntzak egiteko bidegorri sarean. Gure **konpromisoak** gai honekiko hauek dira:

- Udalari bidegorri gehiago egin edo jartzeko eskatzea.
- Bizikleta aparkalekuak eskatzea.
- Kotxekin bizikidetza eta elkar errespetatzea.
- Errepide edo bidegorriaren degradazioa saihestu eta gehiago zaintzea.
- Arreta handiagorekin ibiltzea alde guztietara begiratuz eta bide-arauak zorrotasunez betetzea.

Eta udalari **planteatzen** diogu:

- Bidegorria jartzea, adibidez: Abetxukon, Arantzabal kalean, Gurutze Zuria kalean eta Lasarteko biribilgunean.
- Florida parketik La Senda-Zidorrera doan bidegorria nabarmen egitea (margotu, asfaltatu...).
- *Bidegorria zabaldu eta noranzko bikoitzekoa jartzea, edota noranzko bakarrekoa.*
- Bizikleten presentzia seinaleztatzea.
- Gamarra ateko espaloia zabaltzea eta bidegorri bat egitea.
- *Erdigunean, oinezkoentzako kaleetan bidegorria margotzea bizikletak ibiltzeko, abiadura mugarekin.*
- *Bizikleta aparkaleku gehiago jartzea, adibidez: Galeoi parkean.*

ESKOLAKO AGENDA 21

AGENDA 21 ESCOLAR

VITORIA-GASTEIZ -ESKOLAKO MUGIKORTASUN AUTONOMOA ETA AKTIBOA-
MOVILIDAD ESCOLAR AUTONOMA Y ACTIVA– 2014/2015



Hauek izan dira Vitoria-Gasteizko neska mutilek Agenda 21i egin dizkiogun ekarpenak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu eskaini diguzuen arreta eta denboragatik.

Mugikortasun autonomo eta aktibo baten alde egindako lanak eta ahaleginak zuen onarpena izatea espero dugu eta denon partaidetzarekin hiri berde eta jasangarriagoa lortzeko bidean pauso txiki bat izatearen esperantzarekin, agurtzen zaituztegu.

Eskerrik asko zuen arretagatik, eta hurrengo arte.